

PIZTIAK BIZI DIREN LEKUAN

Testua eta irudiak: MAURICE SENDAK

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Azal gogorrean koadernatua. 25,5 x 23 cm. 48 or. 16 €.

- CALDECOTT HONOR BOOK 1964
- BOSTON GLOBE-HORN AWARD 1981
- NEW YORK TIMES BEST ILLUSTRATED BOOK
- ALA NOTABLE CHILDREN'S BOOK

Piztiak bizi diren lekuan (euskaraz)

ISBN 978-84-8464-399-9. Gaur egungo klasikoak.

Donde viven los monstruos (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-858-1. Clásicos contemporáneos.

Onde viven os monstros (galegoz)

ISBN 978-84-8464-859-8. Tras os montes.

Allà on viuen els monstres (katalanez)

ISBN 978-84-8464-860-4. Clàssics contemporanis.

Onde vivem os monstros (portugesez)

ISBN 978-989-8205-31-5. Clássicos contemporâneos.

Te' tu'ux ku kajtal le wáayo'obo' (maieraz)

ISBN 978-84-8464-957-1. Clásicos contemporáneos.

Gau batez otso-larrua jantzi zuen Maxek eta hainbat gaiztakeria

Egin zituen. Amak esian zion: PIZTIA EZ BESTEA!

eta Maxek erantzun: JAN EGINGO ZAITUT!

Amak, noski, ohera bidali zuen afaldu gabe.

Gau hartan basoa sortu zen Maxen gelan...

Lehen aldiz 1963an argitaratua, "Piztiak bizi diren lekuan"

obrak nolabaiteko polemika piztu zuen hauren jokabide ez eredugarria erakustegatik, baina HGLko klasikoa eta ezinbesteko erreferente izatera heldu da. Hizkuntza askotara itzuli da eta inoizko obrarik salduenetariko bat da.

Bihurrikeriak egiteagatik afaldu gabe ohera joatera zigorturik, Max abiatu egiten da bere logelatik leku fantastiko baterako bidaia sinbolikoan, toki/denbora mitikoan zehar eta bere beldurrei aurre eginik. Basatiak bezain maitagarriak ziren munstro batzuen errege bihurtuta, abiapuntura itzultzen da, eta afaria dauka zain. Joan etorriko bidaia bat, errealitate fikziora, gertatutako metamorfosia amets baten ondorio izan ote den azalpenik gabe.

"Piztiak bizi diren lekuan" album ilustratuaren adibide bikaina da, hitzen eta irudien bateratze ezin hobegatik; istorio poetiko eta samurra da, umorez, ekonomiaz eta testu-ilustrazioen arteko erabateko harmoniaz kontatua. Liburu honetan dena dago bikain bateratuta, xehetasun txikienera artistikoki pentsatuta: diagramazioarekin egindako jolasa, formatua, orrialde bakoitzari darion giro ia magikoa, tentsio argumentala eta hitzen, hotsen eta errepiken konbinazioa.

Horretarako, ilustrazioen tamaina *in crescendo* handituz doa, protagonista mundu onirikoan barneratuz doan neurrian; irudiek orrialde osoa hartuko dute istorioa klimaxera iristen denean, eta txikiagotuz joango dira Max errealitatera itzuli ahala.

PIZTIAK BIZI DIREN LEKUAN



TESTUA ETA IRUDIAK MAURICE SENDAK

- **Gala:** munstroen mundura egindako irudizko bidaia.
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** Caldecott Dominaz saritua, beste sari askoren artean; albumaren diagramazioa eta formatua, ilustraturiko album bikainaren adibide; errealitatearen eta fikzioaren arteko banaketa; irudimena, ametsak; "Gaueko sukaldean" eta "Kanpoaldeko munduan" (ipuin onirikoaren trilogia) obren egile berarena.
- **Liburuaren aurrerapena:**
https://issuu.com/kalandraka.com/docs/piztiak-bizi-diren-lekuan-eusk_5e8f8f383e0d4b

Maurice Sendak

(Brooklyn, Nueva York, 1928 – Connecticut, 2012)

Haurrentzako 90 liburu baino gehiago argitaratu zituen 1951z geroztik, eta ibilbide oparo horregatik 1970ean Andersen Saria eta 1983an Laura Ingalls Wilder Saria jaso zituen. Estatu Batuetako gobernuak Arteen Domina Nazionala eman zion 1996an, eta 2003an Astrid Lindgren Nazioarteko Saria eman zioten Christine Nöstlinger egile austriarrarekin batera. Margolaritza eta marrazkigintza ikasi zituen Art Students League of New York delakoan. All America Comics delakoan lortu zuen bere lehen lana lustratzaile gisa, eta 1951n Harper and Brothers argitaletxearentzat lan egiten hasi zen ilustratzaile gisa. Literaturaren alorrean benetako iraultza eragin zuen bere liburuetako forma, eduki eta ideiangantik. Berezitutako kritikaren aburuz "Estatu Batuetako gizon eraginkorrenetako bat izan zen, milioika umeren fantasiak irudikatzea erantzukizun ikaragarria dela kontua hartuta".



www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com